

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5628

EBAZPENA, 2021eko urriaren 27koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bitartez Azterketa-batzordeburu ordezkoa izendatzen baita Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko 2021eko deialdietako bigarren azterketaldirako.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren bidez, HEOCen zedarritutako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezarri zituen, eta, aipatutako Aginduaren babesean, HABEko zuzendariak, 2020ko abenduaren 2ko, 2020ko abenduaren 1eko eta 2020ko azaroaren 30eko ebazpenen bidez, aurtengo egiaztatze-deialdiak egin zituen.

Jarraian, 2021eko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren bidez, komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko proben Azterketa Batzordeko kideak, HOBE deialdiaren arduradunak, epaimahaiak, ebaluatzaile ikerleak, tutoreak, ordezko tutoreak, lurralde-arduradunak eta lurralde-batzordeak izendatu zituen, proba horien antolaketa- eta didaktika-alorretako lanei ekin ziezaieten.

Halaber, 2021eko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez, 2021. urteko probetarako aztertzaileak izendatu zituen.

Azkenik, 2021eko apirilaren 19ko Ebazpenaren bidez, epaimahaiburu, epaimahaikide, tutore, azterketa-antolaketa-aren arduradun eta aztertzaile bana izendatu ziren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko 2021. urteko probetarako.

Oraingoan, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 36.3 artikulua xedatutakoari jarraikiz; honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xabier Elortza Mujika Azterketa-batzordeko batzordeburu ordezko izendatzea 2021eko deialdietako bigarren azterketaldirako.

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ezen, administrazio-bideari amaiera ematen ez dion Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar diezaioketela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2021eko urriaren 27a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.